



# DANON ARTEAN ZAINZA EKOSISTEMA BAT SORTZEN

## Talde eragilea eta herritarrak 5. saioa

Usurbil, 2021-11-15



# PARTEHARTZAILEAK ETA SAIOAREN EGITURA

Usurbilen zaintza-ekosistema bat eraikitzeko bosgarren saio hau herritar guztiei zabaldu zaie, orain arte egindako lana partekatzeko eta zaintzarekin lotutako beste leku batzuetako jardunbide egokiak ezagutzeko.

Horretarako, aurreko saioetan parte hartu duten talde eragileko kideak eta taldea hasi aurreko bileretan parte hartu zuten pertsonak gonbidatu dira, haien iritzia jakiteko. Bestalde, herritar guztiei dei egin zaie saio honetara gonbidatuz.

Guztira 42 pertsonak eman dute izena.

Saioa bi zatitan egituratu da:

- Orain arte egindako lanaren aurkezpena: bertaratutako guztiak Sutegin bildu dira.
- Taldekako jardunbide egokiak aurkeztea Potxonean.

## ORAIN ARTE EGINDAKO LANAREN AURKEZPENA



Lehen zati hau Agurtzane Solabarrieta alkatearen ongietorriarekin hasi da. Solabarrietak gaur egun daukagun zaintza eredua birformulatzeko eta birpentsatzeko beharra partekatu du. Zaintzak etxeko eremutik esparru publikora ateratzeko beharra azpimarratu du, eta mahai gainean jarri du gizabanako gisa, komunitate gisa eta erakundeetatik hartu behar dugun erantzukizuna. Zaintzen begirada esparru guztietatik egin behar da, eta eraldaketa horietan guztietan ere eman behar da.

Horren ostean, Matia Institutuko Ainara Tomasenak orain arte jarraitu den ibilbidea errepasatu du, udalerriko eragileekin aldeztatik aurretik egindako bileretatik hasi, talde eragilea sortu eta egindako saioetaraino, eta, amaitzeko, aurrera egiten jarraituko dugunaren berri eman du.

Matia Institutuko Erkuden Aldazek eta Mainer Azurmendik talde eragileak orain arte egindako lana aurkeztu dute, taldeak orain arte ekosistema nola definitu duen ezagutaraziz.



## BESTE LEKU BATZUETAKO ESPERIENTZIAK ETA JARDUNBIDE EGOKIAK

Aurkezpenaren ondoren eta taldeka bilduta, beste toki batzuetako jardunbide egokiak partekatu dira. Horretarako, ekimen partekatuen arduradunak Usurbilera hurbildu dira, kasu batzuetan aurrez aurre eta beste batzuetan modu telematikoan, beren esperientzia bertatik bertara kontatzeko.



Hauek izan dira aurkeztutako ekimenak:

### FAMILIAKO ZAINZAILEAK ETA ZAINZA JASOTZEN DUTEN PERTSONEN TALDEA:

- [Sendian](#): Gipuzkoako Foru Aldundiko zaintzaileei laguntzeko programa
- [Adinkide](#): Adineko pertsoneri laguntzeko, aisialdirako eta sozializatzeko GKEa

### ZERBITZU ETA ZAINZAILE PROFESIONALEN TALDEA:

- [Supermanzanas sociales](#) (superilles) Bartzelonako Udala
- [Dementia Village](#): dementzia duten pertsonentzako bizi-inguruneak sortzen

### KOMUNITATE TALDEA:

- [Landalab Zerain](#)
- [Adinkide](#)

\* Ekimenen izenburuak sakatuz gero, horietako bakoitzari buruzko informazio gehiago eskura daiteke.

**HURRENGO BILERA**  
**Urtarrilak 17**  
**15:30**  
**Potxonea**

**m8**  
**emakumea ta zaintza ta...**

